

# Argitalpenak

## Diskoteka

IKER BARANDIARAN

### Ska doinuak biziberritzen eta aberasten

Talde gasteiztarra ia instituzio bihurtu da euskal musikarien artean. Ska musika oinarri hartuta, horri beste hainbat soinuaren aztarnak batu dizkio: rocka, funky, punka, popa eta beste. Hala, jendetza ugari batzen du Euskal Herrian eta Katalunian egiten dituen kontzertuetan; eta dagoeneko zortzi lan luze kaleratu ditu. Nazioartean ere dezente aritu da, eta aurten Suitza, Alemania eta Hegoamerikako hainbat herrialde bisitatuko ditu. Bedera-tzi lagunez osatutako familia honek jai giroko musika dantzagarria lantzen du batez ere; hori bai, kantu kritiko eta aber-tzaleak egiten dizuzte, gizabanakoen eta herrien askatasuna aldarrikatzen dutenak. Euren hizkuntza euskara bada ere, katalanez bi abesti eta gazteleraz bat ere sartu dituzte disko honetan, beste herri horiei keinu eginez.



#### Hamaika gara Betagarri

OIHUKA

Iraupena: 54'57"  
14,45 euro

#### BETAGARRI

### «Martxoaren 3ko moduko gertakariak gogoratu behar ditugu, eta errudunak salatu»

“Jaiak bai borroka ere bai” 80ko hamarkadako leloaren adibidea zarete. Kritika, kontzientzia eta musika dantzagarria, jai girokoa uztartzen dituzue...

Mezu bat zabaltzeko ez du axola musika estiloak: musika alaia, lasaia... Doinu guztiek balio dute. Bestalde, musika dantzagarria oso aproposa da mezua helarazteko.

“Hamaika gara, hamaika pertsona ezagutu eta hamaika lekutan izan gara...”. Zer ikusten duzue atzera eginez gero?

Gauza asko. Beti gogoratzen dugu taldearen hasiera, ilusio handieneko garaia. Gauza txarrak ahaztu egiten ditugu. Japonian, AEBetan eta Alemanian lagunak egitea berezia da.

Haizezko instrumentuek pisu oso nabarmena dute zuen soinuuan...

Betagarriren klabeetako bat da. Ez ditugu soinua osatzeko edo konponketak egiteko bakarrik erabiltzen. Haizezko instrumentuek ahotsak bezala euren esaldiak dituzte.

Zergatik zaudete aurtengo liga jokatzeko irrikan? Zer du berezia?

Aurten Txapeldunen Liga jokatzeko gabiltza, nazioartean emanaldi asko ditugulako: orain Suitzan eta Alemanian gaude; urrian Hegoamerikara joango gara... Ez dugu nahi lan finkorik; lehenengo taldea da.



**Galdera indiskretu bat: nork irabazi zuen partidua?**

Jokalar oso txarrak gara. Ez dugu balio itxurak egiteko. Axubetekin bukatu genuen, orkatila okertuekin... Goseak ez du aterik jotzen sartzeko, baina gai da dorreak botatzeko?

El Ultimo de la Filak esamolde antzekoa zuen. Irailaren 11n batzuk dorreetatik beren buruaz beste egin zuten. Herrialde askotan, berriz, gosea egunero ateetatik sartzen da eta aurrera egiten dute.

**Martxoaren 3ko moduko gertakariak gogortu dizuete bihotza? Zer gehiago behar da jendea sentsibilizatzeko?**

Oso biguna da oroimena, oso azkar ahazten ditugu gauzak. Halako gauzak gertatu badira gogoratu behar ditugu, eta horien errudunak salatu. Tamalez, iaz martxoaren 3ko hainbat biktima berriro eraso zituzten.